

NORANTZA

ANUNTXI ARANA
Eraikizan taldeko kidea«Hizkuntzaren erabilera sexista
baztertzea da gure helburua»

Ipar Euskal Herriko Emazteek Diote eta emazte abertzaleak biltzen dituen Eraikizan elkarteek, hitzen erabilpen sexista baztertzeo kanpaina bat jarri dute martxan.

AMAIA MUNDINANO

Anuntxi Arana Eraikizan taldeko kidea da eta berak eman digu hizkuntza sexistaren harira antolatu duten kanpainaren inguruko informazioa. Bide horretatik, hitzen erabileraren aldaketarako, jendarteren borondatea ezinbestekoa dela adierazi digu.

Zer dira Emazteek Diote eta Eraikizan elkarteak?

Emazte feministen taldeak gara. Emazteek Diote, gehiago ez bada behintzat, duela 15 urte inguru sortu zen eta Hazparne inguruko emazteak biltzen ditu. Eraikizan elkarteak, berriz, martxoan jaio zen eta bertan emazte abertzaleak biltzen gara, euskaldunak gehienak. Gure lana, oro har, talde feminista guztien kasuan bezala, emazteon eskubideak errespetatuak izan daitezen lan egitea da, ukatuak zai zigunak berreskura-tzen saiatuz.

Hizkuntza sexistaren bazterketarako kanpaina bat jarri duzue martxan. Zertan datza hori?

Sexismoaren gaia biziki zabaldua den dudarik ez dago, baina guk alderdi txiki bat lantzeko erabakia hartu dugu. Izan ere, gure ustez, hizkuntza egoera sozial baten ondorioa da eta honek badu eraginik norberaren eta, oro har, jendartea-

ren pentsamenduan. Beraz, hizkuntzak duen garrantziak jabeturik, hizkuntza sexistari alternatiba bat eman beharra zegoela erabaki genuen eta kanpaina hau martxan jartzeari ekin genion.

Zertan datza kanpaina?

Gure proposamena—zenbait adibide jarriko dut—hitz batzuen era-

bilera bultzatuz joatea da. «Giza» hitzari, esaterako, pertsona errateko erabiltzen denari, sexista deritzogu. Hori dela eta, «giza» edo «gizon» erabili ordez, «jende» edo «persona» erabiltzea proposatzen dugu, neutroagoak baitira. «Gizarte» ordez, «jendarte» eta, «anaitasun» ordez, «haurriedetasun» edo «senidetasun». Hauk adibide batzuk baino ez dira, baina gure asmoa eta nahia zein den ikusteko adibide argiak direla pentsatzen dut.

Hizkuntzak pentsamenduan eragina duela esan duzu. Zer da honenkin adierazi nahi duzuen?

Hizkuntzak mezu bat biderratzaren du, zalan-tzarik ez. Es-

trukturalistek hitzak bere esanahirekin zerikusirik ez duela esaten zuten, hau da, zeinu linguistikoa arbitrarioa dela. Gure ustez, ordea, hori ez da arras egia. Izan ere, hitz batek esanahi bat hartzen duenean eta beste esanahi bat eman nahi zaionean, aurreko zentzua kutsatuta gelditzen da nahitaez. Ondorioz, zeinua berez arbitrarioa bada, sinboloen gaiari dagokionez, Alardearekin gertatzen dena har dezakegu adibide. Emazte batek fusila eskuetan izatea sinbolo bat da eta hori gizonetz eta matxista askok ez dute onartzen. Beraz, hizkuntzak pentsamenduan eragina du, jakina, eta hitz egitean zein hitz erabiltzen den oharrezk bere zentzua eta garrantzia duela argi dugu.

Nola gauzatuko duzue lana aurrerantzean?

Komunikabide, elkarte eta beste hainbat guneetara jo dugu gure asmoaren berri emateko. Gure nahia jendearek gure proposamena berri izatea eta horren inguruan hausnartzea da eta, ados egonez gero, hitzen erabilera sexista baztertu dezaten animatzea. Hizkuntzari dagokionez, egia da inertzia asko daukela eta zaila dela egun batek bestera aldatzea, aldatzea ematea kostako dela argi dugularik. Bestalde, jendarteren konpromisoa eta borondatea ezinbestekoak dira hizkuntza asko aldatzeko emateko. Gainera, aldatzea emateko arazoa linguistikoa ez dela konuratu beharra dugu, borondatezko baizik. Beraz, aurrerantzean ere gure lana jendartea sentikortuz joan dadin lan egitea izango da.



Bob Edus

Zirtoka



Txillardegí

Jaigiroa

San Pedro, San Martzial, Xantelen, San Fermín, Santa Orosia, San eta Santa bazter guztietan. Garbi dago: «saindu» egin nahi izan da festa. Batare saindua ez zelako, hain zuzen.

Solstizioaz ahaztu, eta antzinatoko eguzki sakratuarekiko ospaketa arkaikoen zantzu nabarmenak, «kristautu» nahi izan dira. Horretarako jaiek erotik erazteaz arriskugarri izanik, ginarregabatu egin dizkigute, otxandu, erabat mozoztu.

Euskaldun gutxi jabetzen bide da operazio maltzur honetaz.

Baina are gutxiago konturatzaren bide gara hermitzaren alor «politikoa» burutu den mozoztoketa alienatzeak orokorrak.

Kasu askotan, gure herriaren inbasioaren kontrako ekintza mirregarritan sortu baitziren jaiek.

Zer egin du agintek? Eltza gidari hartuz, bide bera. Eta ospaketa mozoztu, folkloretu, mamigabatu, eta espantu inoxo bihurtu ditu.

Adierazleari eutsi dio, beraz: jazerak, tiro-hotak, ezpatak (egurrezkoak enkas!), nik dakita. Baina funtsa, adierazkizuna, erotik aldatuz.

Eta jukuriak bere fruitua eman du: jaiek manisotu egin dira, «despolitizatu», «domestikatu». Histori lapurreta hori behar-beharrezkoa dute Estatu zanzpatzaleek. Jakina.

Horregatik guk, zentzua galdu ez badugu, eta «nazio-erakuntza» betean barrena abiaturik, omen, jaien desmozoztoketa light horri ekin behar diogu. Hemen, eta han, eta bazter guztietan.

Jaigiro ere honetan, eta kondaira apur bat irakurtzeko beta dugularik, guk ikusi egin behar dugu. Etsaiaik manitu dituen ipuinetatik harat iristeko.


AITZINDARIAK

MADALEN LARRALDE
1 7 9 4

FRUTILISAREN 9an: CHAUVIN-DRAGONENKO PLAZAN MADALENA SARATAR JOSKINARI LEPQA EGIN DIOTE.



TERRORISMOAREN OBUZUZ, BERA ESPAINIA BAITO, EGUN BEZALA, ETA ESPAINIA ETSAI IZANKI, EGUN EZ BEZALA.



ETA BERE HOBENA: BERAKO KLIENTARI OIHAL ZEN BAIT BRODATU ETA ERAMAN IZANIA...



FRUTILISA IRAIL ETA CHAUVIN-DRAGON DONIBANEHAN LOHIZUNE; GARAIBO LEGE ARROTZAK GAUR EGUN SEPTIEMBRE ETA SAINT JEAN DE LUZ LERRAZKE EPAIBURUAK.

- MAHAXTE
- Lanhote
- Izozte
- ELHURKOR
- EURIKOR
- HAIZEKOR
- SAPADUN
- LILIDUN
- BELLHARDUN
- BIHILIS
- BEROLIS
- FRUTILIS